

# **Hualde deitura, hidronimia eta paisaiaren elementuen kokapena Euskal Herriko ekialdeko mugetan**

## *The surname Hualde, hydronymy and the location of landscape elements in the Eastern boundaries of the Basque Country*

Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte\*

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**ABSTRACT:** The surname Hualde is present in many of our villages and valleys, but with some variants and different spellings it occurs more frequently in the north-eastern limits of Euskal Herria. Based on the study of the surname, its variants on both sides of the Pyrenees are investigated and the components that make it up are analysed; on the one hand, the hydronyms derived from the Basque base *ur* ‘water’ and, on the other, those constructed with the Basque postposition *-alde* ‘towards the part of, near of’. This also makes it possible to analyse other hydronyms and other common and habitual postpositions in Basque Onomastics, since the postpositional is the way chosen by Basque to express what Romance languages reflect by means of prepositional locutions. Thus, thanks to the postpositions of place, the exact location of the house or place name to which they refer can be determined, and the place occupied in the landscape by the first compositional element of the name it accompanies can be precisely indicated. Throughout the article, we analyse the hydronyms found mainly in the Roncal Valley (Navarre) and in the neighbouring towns of Larrau and Santa Engracia (Basabürüa, Zuberoa) and, to a lesser extent, and always in relation to the previous ones, in the Salazar Valley (Navarre), in the valleys of Barétous and Aspe (Béarn) and in the Ansó Valley (Aragon). The study of this semantic field shows the postpositive richness of Basque, which clearly shows the *continuum* existing between both sides of the Pyrenees. In fact, there are few cases in which a toponym or a surname is not found on both sides, albeit with small differences adapted to each place; there are indeed peculiar morphological or phonetic features that define their origin, but which, ultimately, are also clearly recognised as mere variants of the same common trunk, proof that in another time the relationship between both communities was very close, to the point of constituting the same neighbouring community in which the Pyrenean mountains were not an impassable limit, but a meeting place.

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte. Departamento Ciencias Humanas y de la Educación - Facultad de Ciencias Humanas y Sociales (UPNA/NUP). Edificio Los Magnolios, Planta Baja, desp. 0035 (31006 Irún). – [mugarza@unavarra.es](mailto:mugarza@unavarra.es) – <https://orcid.org/0000-0001-6906-2013>

**Nola aipatu / How to cite:** Lopez-Mugartza Iriarte, Juan Karlos (2023). «*Hualde deitura, hidronimia eta paisaiaren elementuen kokapena Euskal Herriko ekialdeko mugetan*», *ASJU*, 57 (1-2), 613-629. (<https://doi.org/10.1387/asju.25968>).

Jasoa/Received: 2022-11-30; Onartua/Accepted: 2023-03-24.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitzortu-EzKomerziala-LanEratorrirkGabe 4.0 Nazioartekoa licentzia baten mende dago

**KEYWORDS:** Basque language; hydronymy; names; onomastics; place names; postpositions; toponymy.

**LABURPENA:** Hualde abizena gure herri eta ibar anitzetan hedatuta dago, baina aldaera eta grafia ezberdinak Euskal Herriko ipar-ekialdeko mugetan sarriago gertatzen da. Abizenaren azterketik abiatuta, Pirinioen bi aldeetako aldaerak ikertu dira eta berau osatzen duten osagaiak aztertu ere bai; alde batetik, ur oinarritik eratorritako hidronimoak, eta, bestetik, -alde postposizioaz eraikitakoak. Era berean, beste hidronimo batzuk eta euskal onomastikan ohikoak diren beste postposizio batzuk ere aztertu dira; izan ere, postposizioen bidea izan da euskarak aukeratu duena hizkuntza erromanikoetan preposizio-lokuzioen bidez islatzen dutena adierazteko. Honela, leku-postposizioei esker, etxearen, abizenaren edo toponimoaren kokapen zehatz jakin daiteke, bai eta zehatz adieraz ere berak modifikatzen duen izen elkarketaren lehenengo osagaiak zein leku hartzen duen paisaian. Artikulan zehar, batez ere Erronkarin (Nafarroa) eta mugakide diren Larraine eta Santa Grazi herriean (Basabürüa, Zuberoa) aurkitutako hidronimoak aztertzen dira, eta, neurri txikiagoan, Zaraitzun (Nafarroa), Baretos eta Aspe ibarretan (Biarno) eta Anso ibarrean (Aragoi) aurkitutakoak. Era berean, -alde konposizio-elementuaren multzo semantikoaren azterketak agerian uzten du euskararen aberastasun postpositiboa, argi eta garbi erakusten baitu Pirinioen bi aldeen artean dagoen continuum-a. Izan ere, oso kasu bakanetan soilik ez dago bi aldeetan toponimorik edo abizenik partekatua ez denik, leku ezberdinetara egokitutako lerradurekin bada ere; badira, hain zuzen ere, harren jatorria definitzen duten ezaugarri morfológico edo fonetiko bereziak, baina, azken batean, enbor komun beraren aldaera huts gisa ere argi eta garbi aitortzen direnak, garai batean bi komunitateen arteko harremana oso estua izan zela erakusten dutenak, Pirinioetako mendiak ez baitziren muga gaindiezin bat, elkargune bat baizik.

**HITZ GAKOAK:** Erronkariera; zuberera; hidronimia; izenak; onomastika; leku-izenak; postposizioak; toponimia.

## Aitzin solasa

Las palabras que mencionaré las aprendí casi todas de mi familia y en mis estancias en Uztárrroz de niño, además de alguna otra que me ha proporcionado ahora mi padre, Ignacio Hualde Mayo, nacido en Uztárrroz en 1928.

Mi abuelo, José Hualde, nacido en Uztárrroz en 1898, aprendió el vascuence como primera lengua, pero lo fue olvidando con los años por falta de práctica. Mi abuela, María Mayo, nacida también en Uztárrroz pocos años después, sólo aprendió castellano en su casa y, aparte de algunas estrofas de canciones vascas, sólo sabía palabras y frases sueltas que aprendió de escuchar las conversaciones de su madre con otros adultos. Mi padre recuerda la lengua vasca como algo todavía muy común en Uztárrroz durante su niñez pero que, como el traje roncalés y otras tradiciones, estaba asociado con un grupo de personas nacidas algunos años antes que mis abuelos.

Hualde (1995: 522)

*Hualde* abizena oso zabalduta dago Erronkaribarren eta asko izan dira abizen hau izan duten izen handiko erronkariarrak; estate baterako, *Miguel Hualde* jauna, 1723tik 1729ra arte Bidankozeko bikarioa izan zena, eta *Prudencio Hualde Mayo* jauna, 1920 eta 1925 bitartean kargu bera izan zuena. Biak oso ezagunak izan ziren, lehenengoa bere lana taxuz egin ahalko zuela frogatzeko Erronkariko uskara bazekiela erakutsi behar izan zuelako (Bidankozarte 2019a), eta bigarrena, Bonaparte Prinzeari eman zion laguntzagatik.

Abizen honetaz dugun lehenengo testigantza Bidankozeko su eta zedarritzeen liburuan kausitzen da; izan ere, 1366-1368 urteetako zerrendan *Sancho Hualde* aipatzen da, Bidankozen bizi ziren hogeita hamar bizilagunetariko bat zena (Bidankozarte 2019b). Leireko dokumentazioan beste *Sancho Hualde* bat aipatzen da 1425eko agiri batean (Fortún 1992), agian aurrekoaren semea edo senidea izan zitekeena. Azken hau Bidankozeko kapilaua izan zen eta parte hartu zuen epaile bezala Leireko eta Urdazubiko monasterioen artean sortu zen auzi batean. Dirudienez, zortzi urtez urdazubitarrek ez zieten Leirekoei eman urtero zerga gisa ordaindu behar zieten izokina, eta, horregatik, Leirekoek kalte-ordinak eskatu zizkieten; epaileek ebatzi zutenet, izokinaren ordez, ordutik aurrera Aragoiko urrezko lau florin eta erdi ordaindu beharko zizkieketen, eta aurreko zortzi urteetan izokinik eman ez zutenez gero, 20 florineko kalte-ordinak finkatu zuten.

Esanak esan, abizena ez da soilik Erronkaribarren kausitzen; hain zuzen ere, Nafarroako beste leku askotan ere dokumentatzen da; esate baterako (Íñigo & Rekalde 2018), Amaiurren (*Hualdea* 1669, *Hualderena* 1710, *Hualderenea* 1784, *Hualdenea* 1827 eta *Ugaldenea* 2017), Zubietan (*Hualdea* 1622), Narbarten (*id.*, 1653), Donezteben (*Hugalde*, 1591) eta Urdazubin (*id.*, 1647). Orobart, Ibarrak (2011) Mezkirizko izen hauek aipatzen ditu: *Pedro Anso de Hualde, de Alduides* (xvii. mendean); berriz ere *Sancho de Hualde* izeneko beste bat (1723) eta *Margarita de Hualde* (1733). Leyreko Bezero Liburuan (Cierbide 1977): *Eneco Garceiz, senior de Hualdea* (1097). Beraz, ezin da esan *Hualde* Erronkaribarko abizen pribatiboa denik, baina inon baino maiztasun handiagorekin aurkitzen dela, bai; jakina, Zaraitzu eta Erriberarekin batera. Nolanahi ere, argi dagoena da abizen hau ezaguna egin dutenen artean erronkariarrak izan direla nagusi, lehen aipatutako bi erretore bidangoztar eta egungo idazle eta irakasle ospetsu batzuen kasuan bezala. Hurrengo lerroetan, abizen honekin zuzeneko edo zeharreko lotura duten deitura eta leku-izen anitzen testigantzak aipatuko dira, guztiak Erronkaribarko edo mugakide dituen herrietako artxiboeitan jasoak (Lopez-Mugartza 2008; EAT laburduraz egungo grafiaz aipatzen direnean, edo urte soilaz dokumentuan jasotzen den aldaera zuzenean aipatzen denean). Era honetan, *ur-* erroarekin lotutako hidronimoak eta *-alde* postposizioa duten beste abizen eta toponimo batzuk aztertuko ditugu.

## 1. *Hualde* abizena eta hidronimia

*Hualde* abizenaren lehenengo osagaia *ur* hitzaren murrizketa da. Bilakaera hau izen elkarketan baizik ez da gertatzen, *u(h)*- bilakatzen delarik, baina testuinguru honetatik at, dardarkariaren galera ez da gertatzen.

Erronkarin, halere, ez da ohikoa ibaiari *ur* izen soilarekin deitzea, ez behintzat euskaraz; erdaraz, berriz, bai: Izaban, «*lagua e rio que desciende a lagua mayor d'Esca*», 1345; Uztarrozen, «*la agoa maior de Uztarroz*», 1427; Arette-Eretan, «*l'aygue aperada Larron*» (Peillen 1989). Bareto ibarreko Sarraltzünen, berriz, *ur* gorde da hidronimo hibrido batean, *Hourmayou*, 1987; cf. Arzacq kantonamenduan, *Riumayou*, 1882. Erronkarin, oro har, *ugatxa* deitzen zaio; esaterako, Izaba top. *Arainko Ugatxa*: «en el ter[mi]no llamado arayncougacha otra pieça de tierra en senbradura de siete Juntas» (1572), «en el termino llamado Araynco Ugacha una heredad» (1577); Uztarrozen, orobat, «*Arancogacha*» (1806); bestalde, elkarketa baten lehenengo osa-

gai bezala: Izaba, top. *Ugaxiloa*: «la parte llamada ugaJiloa» (1649). Era berean, baina maiztasun gutxiagorekin, *erreka* izena erabiltzen da; esaterako, Urzainkin top. id., «el Camino de Errecagacha» (1615).

Zuberoako herri mugakideetan forma nagusia *uhaitz* da: Larrainen, top. *Uhaitz ordokia*: Uhaix ordoquia (1832), *Uhaitz gañeko alhorra*: Uhaitz gagneco alhorra (1832), *Uhaitz ondoa*: Uhayxa ondouan (1832); eta, orobat, Santa Grazi, top. *Uhaitz ondoa*: Üheyçondua (1914).

Bestalde, aldaera metatetikoak ohikoak dira Erronkaribarren; esaterako, Izaban, *egutxa*, (Urzainkin *ugatx*, FHV 178) eta Uztarrozen, *eguatxa*. Dena dela, bilakaera metatetikoa ahozko hizkuntzan gertatu zen bereziki; esaterako, Izabako Antonia Anaut andrearen mintzoan, *egutxa*: «... bi remo, bi gizon kor, eta... gibelekuan, bat, ta kola, Zarakozaradreino, *egutxa barna* ...» (Artola 1977: 83), «Almadiak, almadiak... Onzi-biétan, eta gero, *egutxáren bárna*, Zarakoza» (Artola 1977: 86), «San Juan ègunian, géntia... góizan bérton, a la mañana luego, *egutxára* eta zánkoak ékuz eta... buría ere bái... órai ez; orài, ñórere èz xoaitán *egútxara*, orái etsén, bañerán sár ta kór ékuz ta fuera... ah! orái, orái beláizurik *egutxán* sar kán gúziak...» (Artola 1977: 92).

Uztarrozen *eguatxa* da erabiltzen zen ohiko forma; hain zuzen ere, Uztarozeko Manuel Labairu jaunak herrian egiten zen hitz joku baten berri eman zidan 1994an (Lopez-Mugartza 2008: 1362): «(E)guatxa, para algunos lo mismo que *agua echa*». Josu Orduna *Kabila* (1994, infor.), Uztaroze top. *Guatxandoa*. Antonia Anaut andrearen mintzoan bertan kausitzen da forma hau (Artola 1980: 70): «Nòra xoáitan? konáino? almadiéroak nòra xoáitan? Zaragózara; *èguatxáti*... y kémenti, séi, zázpi égun, *èguatxá* abajo xuán, Erribráko y eta gero éltan Zaragózará, y eta a... Tudéla... élta(n), y Tortósan ere bái.» Azentua dela eta, Artolak (1980: 69) *eguatxa* mugatua bada [*eguatzá*] ahoskatzen dela dio.

Honela bada, arrazoi linguistikoengatik ere gehiago lotzen zaio abizen hau eremu honi, beste leku batzuei baino. Izan ere, alde honestako dokumentazioan, beste lekuetan ez bezala, abizenaren hiru aldaerak aipatzen dira, bi Pirinioen hegoaldekoak, *Hualde* eta *Ugalde*, eta beste bat iparraldekoa, *Uhalt*, Zuberoan. Aldaera horiek argi islatzen dituzte *ur oinarri hidronimikoaren dardarkariak* jasaten dituen aldaketak izen-elkartu baten lehenengo osagaia izan eta bokal ireki baten aurrean dagoenean; adibidez, Zuberoako abizenetan kontsonante hasperenduna dugu testuinguru horretan, eta, aldiz, Erronkariko abizenetan, edo kontsonantea erabat galtzen da (hau da abizenetan maizenik gertatzen dena) edo belar ahostun modura garatu da, oinarri bereko Erronkaribarko hidronimo guztiekin gertatu den bezala: *ugatxa*, *ugarre*, *ugartea*, etab. Zuberoan, berriz, beti izaten ditugu forma hasperendunak: *uhaitza*, *uharre*, *uhartia*, etab. Bestalde, ez Zuberoan, ez eta Erronkarin ere, ez da kontsonante muturik duen aldaerarik kausitzen, ez bada gorago aipatu den, baina hemengo denetxez dakigun Leyreko Bezerroko hapaxa: *Hualdea* (Cierbide 1977).

### **1.1. *Hualdea*, *Hualtea* eta *Ugaltea*, *Hualde* abizenaren korrelato toponimikoak**

*Hualde* abizena oso hedatuta dago Erronkaribarren, eta horren froga garbia Bidankozeko oikonomian utzi duen arrastoa (*Hualderna*, Aznarez 2018; Lopez-Mugartza & Erronkariko Euskara Zerbitzua 2018). Ondoko ibarretako borden izenetan (edo leku baten jabetza adierazten duten izenetan eta) maiz agertzen da abizen

hau; esaterako, *NTOko* datuen arabera, Biotzarin [Erromantzatua], *Borda de Hualde*, *Borda Hualde* (1898); Jaurrieta, *Borda de Hualde* (1916; *El Portillo de Hualde*, 1994); Itzallen, *Borda de Hualde* (1991); hemendik urrutixeago, Izagaondoan, *La Borda de Hualde* (1994), eta Lizarraldean, ibarretik batere hurbil, Allon, *Hoya de Hualde* (1993). Adibide gutxi hauek balio dezatela mota honetako leku izenen hedaduraren frogia gisa.

Hala eta guztiz ere, beste mota bateko toponimoetan abizen honen korrelatoa, besteak beste, *Hualdea* izan da Nafarroako herri anitzetan; esaterako, *NTOko* datuen arabera, Goizuetan, *Hualdea* (1650; *Hualde*, 1750); Legasan [Bertizarana], *Hualdea* (1686; Baztan Ibaia izendatzeko, *Ualdia* [uáldia], 1994).

Toponimo hau Leyreko Bezero Zaharrean aipatzen da lehenengo aldiz, 1105ean hain zuzen ere, katalogoa agiri honi buruz egiten den erreferentzia 1067 urtea aipatu arren (Goñi Gatzambide 1963: 162): «Fortunio, sacerdote dona a Eximino, abad de Irufña, *el monasterio de Hualdea con sus pertenencias. Facta carta era M.a C.a V.a*». Egileak dioenez, monasterio hau bi Bezerroetan, zaharrean eta txikian, aipatzen da. Monasterio hau Elortzibarko Ezperun herriko *San Felix de Hualdea* eliza izan daiteke, Leireko Monasterioari atxikiturik zegoen *Hualdea* ize-neko eliza edo «monasterio» bakarra zelako. Hauxe balitz, Erronkaribartik urrun dago. Cierbidek (1976) Leyreko Bezerroko *Urdinsade* (\*urdinsaroe) *ualdea* (1110) toponimoa aipatzen du, baina ez du zein herritakoa den esaten; halere, demagun gure aldekoa zela, adibide bakana izaten segituko zuen, ez baitzuken jarraipenik izango geroan.

Hortaz, Erronkaribarren *Hualde* abizenaren korrelato toponimikoa *Hualdea* ez bada, gutxitan agertzen baita, pentsa liteke *Hualtea* izan litekeela, *-alte* baita ia sistematikoki ibar honetako toponimian agertzen zaigun postposizioa; izan ere, Cierbidek (1976) Leyreko Bezerroan *Hualtea* (1097) eta *Valtea* (1107) leku izenak dokumentatzen ditu; haietan batera, arestian aipatutako *Hualdea* (1097) ere jasotzen du, denak aurkintza beraren izenaren aldaerak diratekeenak. Ordea, engoitik ez da *Hualtea* berriro dokumentatuko Erronkaribarren, eta, aldiz, harrigarriena dena, hemendik urrun dagoen Ledeak herrian, berri, bai: «en Liedena ... en el termino llamado *hualtea*» (1562, EAT 4025). Zalantzarik gabe, akats baten aurrean gaude. Litekeena da grafia honen atzean Pio Punt notario erronkariaren ulertze akats bat egotea, bera baita agiriaren egilea. Honela, gerta zitekeen entzun zuena (*Hualdea* izanen zena), bere aburuz *Hualtea* izan zela uste izatea, eta halaxe berreinterpretatu eta jaso zuen, hori baitzen Erronkaribarko toponimian espero zitekeena, baina ez Ledeakoan.

Beraz, ez du ematen Erronkaribarko toponimian *Hualdea* edo *Hualtea* emankorrak direnik. Aitzitik, horien ordez *Ugaltea* da artxibo guztietau aurkitzen dugun aldaera bakarra, beti *osin* hitzaren modifikatzaile bezala. Abizenetan *Hualde* nagusi den bezala, *Ugaltea* (*osin ugaltea*) da nagusi toponimian bere grafia eta aldaera guztiek (EAT): Izaba, top. *Osinugaltea* (1565), *Osin hugaltea* (1595), *Osin Ugaltea* eta *OssinVgaltea* (1600), *Osinhugaltea* (1605), *Hossin hugaltea* (1605), *Ossinugaltea* (1608). Gaur egun leku honi *Usunukaltea* deritzo.

Iparraldeari dagokionez, *Uhaltea* da aldaera nagusia, [uhaltia] moduan ahskatuta: Santa Grazin, *Uhaltie*, *Uhalçayeyece* (1914), Larrainen, *Uhalartia* (1832); cf. halere, besteak beste, Altzürükun top. *Uhaldea*; Bastida-Arberoa, *Uhalde* eta Bithiriñan, *Duhalde*.

Nafarroako Toponimian *Ugalde* (eta, absolutiboan, *Ugaldea*) izeneko toponimo ugari daude; esaterako (*Ugalde, NTO*): Auritz, Prado de *Ugaldecosaroa* (1687; *Ugaldesaro* [ualdesáro], 1993); Izurdiaga (Arakil), *Ugaldeta* (1720). Mugatzalearekin: Erron, *Ugaldea* [ugáldea], Erro Ibaia izendatzeko izen hori ibiltzen dute. Urdazubin, *Ugaldea* (1994). Aldaera ezpainbikoarekin: Etxarri-Aranatzen, *Elcorriubaldea* (1702; Rio de Elcorri, 1706); Urdazubin, *Ubaldea* (1894; baina, La Cassa llamada *Hualdea*, 1702).

Bestalde, ohikoena *Ugalde* eta *Hualde* aldaerak indistintoki nahastea da, ondoko adibideetan erakusten den bezala (*NTO*): Extaurin, *Hugaldeçabaleta* (1544), *Hualdeçabaleta* (1551); Azkaraten (Araitz), Casa *Ugaldea* (1691; *Ugalde* [ualdé], 1992); Baztanen, *Hualdea* (1701; Casa de *Uhalderena*, 1702; *Hualdecochealdea*, *Ugaldenea*, *Hugaldenea*, 1894; *Ugaldeko* borda, 1994; *Ugaldea*, *Ugaldenea*, 1994); Arribe-Atallun (Araitz), *Artize Hualdea* (1709; *Artisualde*, *Artiz Ugalde*, *Artizugalde*, 1990); Itsason (Basaburua), *Ugaldeta* (1712; *Hualdeta*, 1893; *Ugaldeta* [ualdéta], 1993); Igantzin, Borda *Ugaldecoborda* (1752; *Ubaldea*, *Ubaldia*, *Ubaldecoborda*, 1795; *Hualdecoborda*, 1960); Sarasibarren (Esteribar), *Ugaldea* (1789; *Hualdea*, *Gualdea*, 1901; *Ugaldea*, 1994); Ituren, *Hualdea* (1850; *Ugaldea*, 1988); Urritzolan (Arakil), *Ugaldeta* (1883; *Gualdeta*, *Hualdeta*, *Hugaldeta*, 1894); Oroketa-Erbitin (Basaburua), *Hualdeondoa* (1915; *Ugalondoa* [uelónedo], 1993); Allin (Larraun), *Hualdeta*, *Ugaldeta* (1915); Zuhatzun (Arakil), *Hualdeta* (1915; *Ugaldeta*, 1991).

## 1.2. *Ugalde*, *Hualde* abizenaren sinonimoa

Beraz, toponimian *Hualtea* / *Ugaltea* dikotomia asimetrikoa da, ia kasu guztietaan *Hualtea* aldaera belarra aukeratzen baita. Halere, abizenetan ez da gauza bera gertatzen, *Ugalde* ohikoa den arren, *Hualde* da nagusi Erronkaribarko onomastikan. Biak sinonimoak dira eta zenbaitetan trukagarriak (agiri berean *Hualde* eta *Ugalde* aldaerak aurki ditzakegu pertsona bera izendatzeko: «Josepa *Ugalde* [orri bazterrean, *Hualde*], Erronkari, 1787»).

Honela, *Hualde* aldaeraren ondoan, *Ugalde* dugu, *ur* hitzaren *u(h)-* garapenaren ondorioz sortutako hiatoa apurtzeko nagusitzen den aldaera belarra, *ug-*. Hona he men, Bidankozeko adibide batzuk (*EAT*): Joan *Ugalde* (1665), Sanch *ugalde* (1676); Agustin *Ugalde* (1676).

Grafia ezberdinak saiatu dira abizena idazteko, hona hemen garrantzitsuenak; hantxe batez hitz hasieran, Izaban: Juan Martin *Hugalde* escribano (1817), Andres *Hugalte* (1817) eta Vgrafiaz hitz hasieran, Bidankozen: Joan *Vgalde* (1676).

Hala eta guztiz ere, hiato baten erdian ezpainbikari bat sor daitekeen bezala, ematen du hitz hasieran gauza bera gerta daitekeela aurreko atzealdeko bokal goikoaren kontsonantizazioaren ondorioz; adibidez, Izaban, «*Joanes Valt als. Larrayn*» (1573) eta, orobat, gorago aipatu den *Valte* toponimoa. Jakina, gerta daiteke bokala adierazteko eskribauak erabili duen grafia latinzalea hutsa izatea, arrazoi gehiagorekin kontuan hartzen badugu maiuskula dela; baina, argi dago honelako grafiak ebakera kontsonantikoa (edo, gutxienez, semikontsonantikoa) ahalbidetzen duela.

Grafia honetaz denaz bezainbatean, bada adibide deigarri bat Ansoko onomastikan, Ibarreko Artxiboko Kapitulazioen Liburuan *Ugalde* abizenaren aldaera guztiz berezi bat dokumentatzen da, bere osakeran hasierako bokala bikoitzu baita (edo, nahiago bada,

haren aurrean erdikontsonante bat garatu baita, atzeko bokal goikoa galdu gabe, horri ere eutsiz: «Primo fue tratado entre dichas partes q. el dicho Martin de *Vugalde* rienda el Puerto de Estibiella y Tortiella por tiempo de un año» (1655, *EAT* 4860).

Jakina, inguramendu fonetiko honetan aldaera belarrak sortea ez da zaila, dela metatesiak eraginda (*Ugaldea* > *Gualdea*), dela hitz hasierako bokal bikoizketaren lehenengo osagaiaren kontsonantizazioak eta artikulazio puntuaren aldaketak sortua (*Vualde* > *Gualde*). Esandakoaren adibideak dira Nafarroako toponimian kausitatu-tako ondoko hauek (*NTO*): Sarasibar (Esteribar), *Gualdea* (1901); Urritzola (Arakil), *Gualdeta* (1894). Cf. *Viasconia* (vii. mendea, Fredegarioren Kronikan; Auñamendi), *Wasconia* (Orpustan 2000), *Wasconia ou Vasconia* (Morvan 2004), eta guztiz belar bilakaturik, *Guasconia Descriptio*, *Gasconia* (Botero 1598).

Hala eta guztiz ere, aldaerarik bitxiena Artzi ibarreko Uritz herriko toponimian aurkitzen da; herri honetan erdal itxura hartu duen *Baldezocoa* (1892, *NTO*) leku izena dokumentatzen da, ‘Val de Zokoa’ bezala uler daitekeena, baina Uritzen ez dago inongo ibarrik *Zokoa* deitzen denik, *Hualdezokoa* izeneko leku bat, berriz, bai: *Hualdezocoa*, *Hugalzoco* (1892; *Ugalzoko*, 1994). Beraz, argi dago, kasu honetan bederen, hitz hasierako bokal ezpainkaria noizbait erdikontsonante bezala ahoskatu zela eta, azkenean, guztiz kontsonantizatu zela.

Gertakari hau oztopatzeko, gaztelaniaz beti markatu ohi da etimologikoa ez den hatxe bat izenaren aurrean eta, honela, irakurlea behartzen da, edo gidatzen, *b*-aren ondorengo letra bokal gisa ahoskatzen, haren kontsonantizazioa ekidinez; gauza bera egin zuten Erronkaribarko eskribauek: *Hualde*, *Huarte* idatzi zuten, eta ez, *Ualde*, *Uarte*; edo ez zuten, grafia latinizatuan, *Valde*, *Varte* idatzi, [balde] edo [barde] ebakerak ahalbidetzen direlako.

Beraz, gaztelaniaz hatxea erantsi bada, arrazoi praktikoak direla medio izan da, baina ez arrazoi etimologikoek eraginda. Euskaraz, berriz, hitzaren jatorrizko forma-rekin begirunea erakusten duen grafia hatxeduna erabiltzen dugu, *Uhalde*. Honela, hatxearen ebakerak, mutua Hegoaldean edo hasperenduna Iparraldean, noizbait leku horretan egon zen dardarkaria gogora dakarkigu, eta hark sortutako hutsunea betetzen dator bera (*EAT*): «Alexis Uthurburu dit *Uhalt*» (1832, Lorraine); aldaera, *Duhalt*, «Bernardo *Duhalt de Sola*» (1661, Santa Grazi). «Zacharie Capdepon, allié *Duhalt*, au Bourg» (1914, Arette).

Laburbilduz, Erronkaribarren *ura* izena eta *-alde* postposizioa batzen dituen abizenaren aldaera nagusia *Hualde* da, *Ugalde* bigarren aldaerarik hedatuena izanik. Bestalde, *Uhalde* izenaren etimologia gehien errespetatzen duen grafia da, Zuberoako *Uhalt* abizenarekin batera, hatxea espero genezakeen lekuaren agertzen baita. Toponimiari dagokionez, *Ugaltea* da, salbuespenak salbuespen, ibarrean aurkitzen dugun forma bakarra, *Uhaltia* Santa Graziko, eta oro har Basabürüko, aldaera izanik.

## 2. *-alde* postposizioa eta bere aldaerak

Mitxelenak (1969: 43) García Larraguetak (1957) atonduriko Jerusalengo San Joan Ordenako Nafarroako Prioretza Nagusiaren Bilduma Diplomatikoko izenak jasotzen ditu, XII.-XIII. mendetakoak gehienak: «*Urracha Donamaria aldeco* ‘de la parte de Santa María’, *Sanso Lavaldeco* ‘de la parte del horno’». Ildo beretik, Cierbidek (1976: 257) Leyreko Bezeroaren adibideak jasotzen ditu: «(illam casam de-, f. 96,

1102) *Hualdea, Hvaltea, Valte.*» Cf., halaber, Mitxelena (1973: § 33). Iñigo eta Rekalde (2018: 192) egileek Nafarroako herri anitzetako testigantzak ematen dituzte: «*Cubialde* eta *Cubialdea* (Ituren, 1565), *Eliçaldea* (Beintza-Labaien, 1545; Doneztebe, 1571), *Errecaldea* (Zubieta, 1544; Ituren, 1613; Erratzu, 1691; Amaiur, 1758), *Errotaldea* (Lesaka, 1607; Bera, 1692), ... *Osinaldea* (Arantza, 1726), *Yturraldea* (Almandoz, 1361)....».

## 2.1. **-alde:** Erronkarin bereziki eta Zuberoan hapax moduan

*Eihera.* Larraíne, deit. *Eiheralde:* Eyheralde (1832).

*Eliza.* Burgi, deit. *Elizalde:* Elicalde, linar de andelle (1562), Eliçalde, domingo (1667), Elizalde, tomas de (1659, Bardea). Urzainki, deit. *Elizalde:* Elicalde, migl. mјn. (1583), Eliçalde, martin (1581). Hualdek (1995: 511) dioenez, hitz honen de-klinabidean bokal-uzkurdura ohikoa da eta ez dagoenean, nolabaiteko presio analogiko batek sortua da. Horrela, *elizáko* genitibo-lokatibo singularra [I61: 398]<sup>1</sup> / *eliza-ko/* da, eta ez /eliza-a-ko/), cf. *ídi-ko* ‘hiriko’; azentua uzkurdura duten beste forma lokatibo berezi batzuekiko analogiaz eraikiko da, hala nola *elizán* inesiboa [AM58] eta *elizára* adlatiboa [AM58]. Hualdek (2017: 177) aipatzen duen bezala, zubereraz «azentua oro har azken-aurreko silaban doa eta salbuespenek azentua azken silaban dute. Erronkarieraz, aldiz, bi azentuera horietaz gain, azentua azken-hirugarraren silaban kokatzen da maiz.»

*Erreka.* Bidankoze, deit. *Recalde,* Luis (1892). Zaraitzu, deit. *Recalde* diputados, mn. (1631). Recalde, y por el quinon de atabea miguel (1665). Recalde de ygal, miguel (1665, Igari). Aldaera bi atzizkien baturaz (-alde-, -büriü): Santa Grazi, top. *Errekaldebüria:* «Errecaldeburie» (1914). *Errekaldebüriü:* «Errecaldeburu» (1914). Interes handikoa da toponimo hau, zeren eta argi eta garbi erakusten baitu toponimian *-alde* postposizioa gordetzen dela beste postposizioarekin batera doanean, baina kontsonantea ahoskabetzen dela eta, mugaturik baldin badago, bokala hesten dela postposizioa bakarrik dagoenean: *-altia*.

## 2.2. **-aldea:** Ez Erronkarin, ez Zuberoan

Gure aldeko toponimian ez da kausitzen, gertuko ibarretan ohikoa den arren:

*Erreka.* Sansoain, Urraulbeiti, top. *Errekaldea:* «Sea Manifiesto y notorio a quienes Veran esta escritura publica de poder y procuracion como en el lugar de Sanssoayn del Valle de urraul... el termi.o de *errecaldea...* en la misma endrecera de *erreca aldea*» (1616), «SePan quantos esta pnte. carta e Inposición de çenso Vie-ren como yo Joan de yribarren vecino del lug.r de yribarren vecino del lug.r de san-soayn del valle de Vrraul tanto en mi propio nombre como pror. que soy de... Mi-guel enecot vezino del lug.r de Artaxo... yten una pieça de quattro rouadas sita en el

<sup>1</sup> Hualderen lanean aurkitzen dira erreferentzia hauek: «[I61]» Izagirre (1961) lanari dagokio, eta «[AM58]», berriz, Jacques Alli  res-ek eta Koldo Mitxelenak 1958an Izabako Simona eta Pastora Anaut andreei egindako grabazioari.

termino de *erecaldea* afrontada con el regacho que passa de lado de la una parte y de la otra con camino real que ba para el lugar de nardues andurra... mas otra pieca de seys rouadas en la misma endrecera *erecaldea* afrontada con pieca de mn. de perez de la una parte y de la otra parte con camino j senda que ban para la ermita de san saluador» (1616).

### 2.3. -alt: Zuberoan, azken bokala galdurik

*Hegi*. Uztarrove, deit. *Egialt*. Eguialt, campos de mateo aroca y mateo (1649); Heguialt, la dicha maria (1650); Heguialt, un campo de mateo (1650). Hualdek (1995: 521) -*egi* atzizkia duen *patatégia* hitza jasotzen du ‘lursagarren edo pataten gela’ eta, era berean, beste hau gaineratzen du: *aguixagi* ‘abartegia, egurtegia’ (1995: 520).

*Eihera*. Feas/Inhasi, Baretos & Eskiula, deit. *Deyheralt*. (1793): «Par devant Moy Notaire publicq-Resident aramits chef lieu du Canton Districq Doloron et les temoins Bas nommés à été present le citoyen Joseph Deyheralt Laboureur Desquiule... En faveur de pierre Mendiondou Cadet d. Bordachar laboureur demeurant à feas Egalment present et acceptant toute y cella piece de terre en nature de prè Scituée au d. lieu de feas de Contenance de deux arpents... Confrontant avec chemin publicq, leau de litos, et terre Commune.» Lorraine, deit. *Eiheralt*. Egheralt, Jean (1832); top. Eyheraltceberia (1832). Santa Grazi, deit. *Eiheralt*: Eyheralt (1860); borda iz. Eiheraltborda (1914). Herri honetako toponimoen artean gauzatze bitxi bat gertatzen da, zenbaitetan postposizioaren berretura edo emendatzea gertatzen delako: *-alt-* + *-altia*, Santa Grazi, top. *Eiheralt altia*: Eyerhalt altia (1838); *Eiheraltautia*: Eyerhaultaltia (1838). Beste alde batetik, *-alte* > *-alt* murrizketa gertatu ondoren, bigarren garapen bat gerta daiteke azkeneko kontsonantearen beraren galera ahalbidetuz (*-alt* > *-al*): Santa Grazi, deit. *Eiheral(t)*: Eyheral Alçat, Dominique (1914).

*Eki*. Uztarrove, deit. *Ekialt*. Equialt vezina de Ustarroz, Graxi (1525). Izaba, deit. id.: «Carta de bentta ottorgada por Sancho lurro vezino de Ustarroz en favor de pettri equialt bezino dysaba» (1569).

*Eliza*. Urzainki, deit. *Elizalt*: Elicalt, una pieza del dicho Pedro (1636). Santa Grazi, deit. *Elixalt*: Elichalt, Antoine (1861), *Elichalt-Junet* (1865); top. *Elixalt*: Elichalt (1914). *Elixalt berria*: Elichalt berria (1914), Elichatberria (1838). Montori-Berorize, top. *Elissalt* (EAT). Halaber, Biarnoko Baretos ibarreko Aramitzen, deit. *Dichalt* (*Elixalt* > *(El)ixalt*): «un piece de terre en nature de pré avec les arbres y existants sauf les Chataigneurs que le Sr. Casebonne Sest Reservé pour lui appellée Barbarly de Contenance de trois arpentes Grosse perche ou Environ, Située au d. lieu Daramits... Confrontant de lun cotté avec terre de lahitte, de lautre avec terre du d. Sr. Dichalt acquereur» (1789). Aldaera bi atzizkien baturaz (-*al(t)-*, *-be*): Lorraine, top. *Elixalbe*. Elichalbo Enclos (1832).

*Erreka*. Feas/Inhasi & Esquiule/Eskiula, deit. *Recalt* (1789): «Par Devant Moy Notaire Royal et temoins Bax Nommes a été présent alexis Béhéragaray cadet du lieu Desquiule habitant a feas principal, et avec lui Joseph Beheragaray son frère ainé, et pierre mendiondou du d. lieu Desquiule... en faveur du Sieur de Casaulong prêtre,

curé de feas, et docteur en theologie... presents et temoins *Simon Recalt du d. lieu D'esquiule*, Ciprien Sabuquidoy de Roquiague en Soule, et moy Antoine Danchou... Beheragaraïcadet, Beheragaray, Mendiondo, Mendiondou fils Regent du lieu Daramits.» Santa Grazi, deit. *Errecalt*, Pierre (1914).

*Keheila*. Hualde (1995: 523): «*queleta* ‘escalera de madera; cancilla’ > *cleta*.» Cf. *OEH* (s.v. *keheila*): «Onom. Quehelhauguy (1520) ... (kehella, kirilla, kihilla); Lrq. Valla, barrera de enrejado. kheheilla..., la cliae, la claire-voie ... Dv. Cancilla, puerta rústica. Se diferencia de *kereta* en que esta es cancilla hecha de palos entrelazados y *kirilla* lo es de maderos». Lorraine, etxe izena, oikonimoa; Urdiñarbe, top. *Queheillalt* (*EAT*).

*Lats.* Mitxelena (1973: § 398): «*lats* ‘arroyo’: *Lasa*, *Lasaga* (*Lasague*, *Laxague*), *Lasagabaster*, *Lasalde* (*Laxalt*), *Lasao*, *Laspiur*...». Lorraine, eziz. *Latzalt*. «Ferrando [maison *Latzalt* dit Ferrandou]» (1832). Etxe izena, oikonimoa, «*Laxalt* enclos [maison, sol]» (1832).

Gaskoiez okzitanieraren *-al* taldea *-au* bezala garatzen da, eta hemendik *-alt* bukaera *-aut* bilakatzen da, Erronkaribarko *Anaut* deituraren kasuan bezala (*Arnaldus* (1280), *Arnald* (1115), *Arnaude* (1839), *Arnaudet* (1389), *Arnault* (1427), *Arnaut* (1505)). Jakina, hemengo bukaera hau ez da aztertzen ari garen postposizioa, izen propio baten bukaera baita, baina intereseko da bilakaera hau kontuan hartzea, zeren eta garapen honek zenbait ikerlari (esaterako, oh. perts., Jean-Michel Bedaxagar etnografo bera) Aspe ibarreko *Etsaut* Toponimo Nagusiaren oinarrian euskaran *etxalt* (Internet Archive 2015) izena ote dagokeen galdezera eraman baitu, beti ere gaskoiaren *Eth Saut* ohiko etimologia zalantzan jarri gabe, dokumentazio zaharra honen alde agertzen baita (Grosclaude 1991: § 9); hala eta guztiz ere, cf. *Roches d'Etchaltia*, Altzürükün (*EAT*).

#### 2.4. *-alte*: Erronkarin eta, hitz bukaeran mugatzailerik ez dagoelarik, Zuberoan

*Alhor*. *Alte-* hitz hasieran. Lorraine, top. *Alteko alhorra*: Alteco alhorra, Alte-coalhorra (1832, *EAT* 4947); halere, akatsa izan liteke (*alte-/arte-*); izan ere, cf. *Arte-koalhorra*: Artecoalhorra (1832).

*Borda*. Santa Grazi, top. *Bordaltekro Sorhua*: Bordalteco Sorhoye (1914). *Bordal-teko alhorra*: Bordalco Elhorre (1914).

*Eihera*. Santa Grazi, top. *Eiheralte Baratzia* (1914); *Eiheralte borda* (1838).

*Eki*. Izabako, top. *Ekialterrea*: Equalterrea, el termino llamado (1564). Aldaera, *Ikialte*. Mendigatzak Azkuieri hauxe idatzi zion (Estornés Lasa 1984: 74): «Yzeya eta lerra aztan dra oxezkietan; bagoa sierretan; aretxa *ikialtetan*; eta artakarroa peña errietan». Erronkari, top. *Ikialtea*. Yquialtea, Juane marco de (1601); Yquialtea ó Solana tras de la Yglesia (1836). Egun, Izaba, top. *Ikalterrea*, Icalterrea (1828). Justo Baqué Salvoch jauna (1987, infor.): «Nosotros decimos *Ikalterrea*».

*Eliza*. Bidankoze, borda iz. *Lisalte*, Borda de, *Lixalte*, Borda de (*EAT*). Burgi, deit. *Elizalte*, linar de nicolas (1645); Elizalte, Piezas de Pedro (1661). Aldaera grafi-koa, f hautsiaz: Eliçalte, cassa de domingo (1654). Erronkari, deit. *Elizalte*: Eliçalte, canpos de Joan (1642). Garde, deit. *Elizalte*: Elicalte agote de garde, Joan (1612);

Eliçalte, Ju.o (1612). Santa Grazi, deit. *Elixalte*: Elichalte, Jean-Pierre Eyheramendy dit (1914); Elichalte, Joseph Eyheramendy (1914).

*Erreka*. Santa Grazi, top. *Errekalteburua*: Errekalteburia, Errecalteburie (1914). Larraine, top. *Errekaltekoborda*: Errecaltecoborda (1832).

## 2.5. *-altea*: Erronkaribarko aldaera

*Borda*. Izaba, iz. arrunt. *bordaltea*: «Iten en calordoqui tres Juntas de tierra afron[ta]das con una bordaltea que solia ser de petri marrquo y Con pie[ç]as de petri negarra» (1593). Izaba, top. *Bordaltea*: «en la bordaltea de bichitoça por la parte de la pena» (1579); Bordaltea de sancho gorrindo (1586); Bordaltea de Ladronda (1599); Bordaltea de erretola (1600); Bordaltea de Martiaberroa (1602); Belagua, bordaltea de (1609).

*Eki*. Izaba, top. *Ekialtear*: «Barranco de Bolozarre llamado Equaltea» (1828). Aldaera, *Iki*-: Erronkari top. *Ikialtea*: «Yquialtea ó Solana tras de la Yglesia» (1836). Uztarroe, top. *Ikialtea*: «Juane marco de yquialtea Vez.o de la dca. Villa» (1601). Egungo aldaera, *Ikaltea*: «en Icaltea un huerto de dos almutadas de tierra poco más o menos» (1806); Icaltea, Un huerto en (1806); Icaltea o Amucu (1806).

*Errota*. Burgi, top. *Errotaltea*: Rotaltea, el termino de la dha. va. llamado (1653); Rotaltea, un campo con su huerta en (1850). Erronkari top. *Gardeko Errotaltea*: «mas un campo en el termino llamado Gardeko errotalteade sembradura de tres Robos de trigo afrontado con Camino que pasa al molino de garde y de parte de la villa con campo de Vicente landa, y por la parte arriba con Camino Real que va a garde y pieza de Ju.o arregui» (1670). Garde, top. *Errotaltea*: «mas un Campo en errotaltea» (1631). Izaba, top. *Erratzukoerrotaltea*: «y despues de los suso d[ic]go baxamos a errachucoerrotaltea y a la otra parte del rrio a la pieça de Joan garayo y en ella a la entrada del passo que passa del Rio y en la espueda pusimos Un mojon de piedra con dos Testigos» (1600); «una guerta que ella tiene y posse en la parte llamada errachucoerrotaltea afrontada con guerta de m[arti]n barricat y nicolas osquiguij[le]ja y Joan baron mayor» (1601). Aldaera erromantzea, *Molino de Errachu* (1568); Errachu, el molino llamado de (1569); Errachu, molino biejo (1600). Izaba, top. *Sansoren Herrotaaltea*: «la parte llamada Sansoren herrotaaltea» (1595). Aldaera, *Sansonerrotaltea* (1828). Aldaera erromantzea, *Molino de Sanso* «la presa y bocal del molino de sanso... obligacion dentre la Villa y masse Joan de Urquidoy, sobre la pressa del molino de sanso.» 1599). Bitxia da, baina *Sansoren Errotaltea* eta *Erratzuko Errotaltea* esaten denean errota berberari buruz ari gara, *Sanso* izena *Erratxu* abizeneko jabe batena delako: *Sancho Errachu* (1569). Sanso deklinatzen da edutezko genitibo bezala, eta abizena, berriz, lekuzkoa bezala; hemendik ondoriozta genezakeena hauxe da: *Santxo* edo *Sanso* izeneko gizona *Erratxu* izeneko leku batekoa izan zitekeela, *Sanso Erratzukoa* esango bagenu bezala. Urzainki, top. *Errotaltea* (1802). Uztarroe, top. *Errotaltea*: Errot Altea, Errota Altea, Errotaltea o Achea (1806).

*Gaztelu*. Hualdek (1995: 521) Castillo Nuevo herriaren euskal izenaren berri ematen du: *Gaztuluberri*. Hala eta guztiz ere, informatzaile batek, segur aski lapsus batek eraginda, *Gáztulu Zárra* zela esan zion. Burgi, top. *Gaztelualtea* (1722).

*Krutxe.* Uztarroze, top. *Krutzaltea:* «Un huerto en Cruchaltea junto al Mimbral» (186).

*Lohi.* Izaba, top. *Loikoalteo:* «el Parage llamado Loico-altea» (1828).

*Zubi.* Urzainki, top. *Zibialtea:* Cibialtea, p.a de domingo lopez (1650); Cibialtea, piecas de Jn.o herlex (1650).

Atal honi bukaera eman baino lehen, kasu berezi batzuk aipatu behar dira; alde batetik postposizio hau duten hagionimoak, eta, beste alde batetik, oro har, leku izen propioen gainean eraikitako oronimo postposiziodunak.

Hagionimoei dagokienez, postposizio hau emankorra da santuen gurtzarako eraikiriko ermiten ondoko tokiak izendatzeko; adibidez, *Domarialtea*, *Sanjuanaltea* eta *Sanjulianaltea* (erdaraz, ‘la parte de’ esanahi du: Erronkari, «*la parte de* done petri zarra», 1672; Izaba, «*la parte de* Donojoro», 1828; Urzainki, «y por la parte de San miguel con pieza de Joan cherrall y de Joan Herlex», 1662; Uztarroze, «En Acabatamburu, de *la parte de* San Juan o del Puerto con un barranco o rigacho», 1806).

*Donamaria.* Izaba, top. *Donamarialtea:* «una pieça perteneciente a la dga Cassa sita en *donamarialtea*» (1622); Donamaria altea, mas otra pieza en (1669). Aldaera, *Denamarialtea* (1634). Izaba eta Anso arteko mugan, top. *Andre Donamaria Urria:* Dona Maria Vrria, la Punta de Andre (1753). Aldaera, *V* grafia ezpainbikotzat hartuz: Dona Maria Bria, la punta de Andre (1691).

*San Juan.* Erronkari, top. *San Juan Altea:* «Iten mas en *San Juan altea* en los campos de ilario Bertol...» (1615). *San Juan Altea:* «Mas en *San Juan altea* Josepa Ugalde un rovo y quattro almudes de trigo de daño de Ganado menudo se aprecio el dia 18 de Agosto... en *SanJuan altea* Pasqual Martin rovo y medio de trigo de año del Ganado menudo se aprecio el dia 18 deAgosto» (1787). San Juan altea (1836); San Juan Altéa debajo de Mendigacha.chiquia otro huerto, el barranco de (1836); San Juan altea á la parte del termino de Yosea (1836); San Juan Altea, el Solano de (1836).

*San Miguel.* Erronkari top. *San Miguel Altea* (1836); San Miguel Altea, la esquina de (id.); San Miguel Altea en la esquina para la Solana de Chanca (id.); San Miguel Altéa una faja (id.); SanMiguel Altea, el termino llamado (id.). Aldaera, *San Miguel Altéa* (id.). Aldaera, euskaraz, *Done Migele.* Erronkari, top. *Done Migele Altea:* «parte llamada done miguele altea de sembradura de dos Robos de trigo afrontada con la hermita de San miguel Camino Real y pieza de Ju.o arregui» (1665); «en el ter.no llamado done miguele altea afrontada con el camino R[e]jal Regacho de Chanca camino de chanca» (1665).

*San Julian.* Izaba top. *Sanjulianaltea* (Estornés 1985: 386). San Julian Altea: «Cavo de esta Villa San Julián Altea» (1828). Justo Baqué Salvoch jauna (1987, infor.): «No he oido nunca ni *San Julián Altea*, ni *Sanjulianpea*; me imagino que será lo mismo que *San Julián*, porque está en un altico; pero siempre hemos conocido *San Julián*».

Orobat, eta gorago esan bezala, *-alteo* postposizio mugatu hau toponimo askori lotuta agertzen da. Kasu guztietan, postposizioa duen toponimoa, postposiziorik ez

duen toponimoa kokatzen den tokitik gertu (edo ia leku berean) dago; esaterako, Burgi, top. *Eskarrealtea*, Erronkari, top. *Nabarzatoaltea* era Izaba, top. *Zerrotaltea*, hurrenez hurren, Burgiko *Ezka* ugatxaren, Erronkariko *Nabarzato* eremuaren eta Iza-bako *Zerrotatza* aurkintzaren ondoan kokatzen dira.

## 2.6. *-altia*: Zuberoako aldaera nagusia, hiatoa aitzinatuz

*Alhor*. Larraíne, top. *Alhoraltia*: Alhoraltia (1832). Santa Grazi, top. *Alhoraltia* (1914).

*Athari*. Hualde (1995: 524): «La palabra *ateas* ‘grandes piedras, especialmente a la entrada de los valles de Belagoa y Mintxate’, de ser como parece el vasco *ate* ‘puerta’ (aunque para ‘puerta’ se empleaba *borta*), tiene una acentuación que con bastante seguridad no es la que tendría en vasco.» Larraíne, top. *Odilletako Atharia Altia*: Odilletako atharia altia (1832).

*Berro, Berrueta*. Santa Grazi, top. *Berrueta Altia*: Berrouette altia, Berrouete Alcia, Berrutaltia (1914).

*Bide*. Hualde (1995: 514): «En compuestos poco lexicalizados el acento del primer miembro puede aparecer con acento pero subordinado al acento del segundo miembro, como en *bide-bérria* [AM58] ‘la carretera’ (camino nuevo), o *bàgo-maltá* [AM58] ‘el hayedo’». Larraíne, top. *Nezarbide altia*: nesar-bide altia, Nesarbidealtia, Neçarbideçaltia (1832). Alegia, *Nezarra* izeneko aurkintzara daraman bidearen aldean, Larraíne, top. *Nezarra*: Necarra, Neçarra (1832).

*Borda*. Santa Grazi, top. *Borda Altia*: Borda altia, Bordaaltia, Bordealtia, Borda altié (1914); top. *Olhatzebordaltia*: Olhatceborde altia (1914). Aldaera zenbatzailearekin: *Bi Borda*. top. *Bibordaltia* (1914). Aldaera izenondoarekin: *Borda berri*. top. *Bordaberrialtia*, *Bordaberrikoaltia*: Bordaberricoaltia (1832).

*Eihera*. Larraíne, deit. *Eiheraltia*: Eyheraltia (1832); top. *Eiheraltia*: Eyheraltia, Eyhera altia, Eyheralhia (id.); top. *Hasmeheka Eiheraltia*: «Hasmeheca Eyheraltia [moulin]» (1832). Aldaera izenondoarekin: *Eihera handia*: Eyhera handea altia, Eyhera hadea altia, Eyherahandea calzia (1832). Santa Grazi, top. *Eiheraltia*: Eyheraltia, Eyheraltie, Eyheraltia (1914). Etxe izena, oikonimoa, *Eiheraltia*: Eyheraltie (id.). Aldaera postposizioa berretuz: *Eiheralt altia*: Eyheralt altia (1914). Aldaera bi postposizioz (-*buria*- + -*altia*): Eyheraburinaltia (1832).

*Eki (Ekhi)*. Santa Grazi, top. *Ekhialtia*: Etqui altia (1914). «Jean-Pierre à Ekhialtia» (id.); *Ekhialtia*: Lequialtia (1838). Cf. Uztarroze, top. *Ekia*, Barranco de (EAT).

*Elge*. Mitxelena (1973: § 203). Garate (1962: 127): «*Elge*. En Azkue es ‘campo cultivado’, en la Baja Navarra. Luis Eleizalde vierte *elge* como ‘campo desbrozado’ ... En Zuberoa tenemos a *etxe-elge*, que designa ‘posesiones de la casa’, *elge-zain*, ‘guarda rural’ ... *Elkart* y *Elkarte* significan ‘entre seles’». Ozaze-Zühara, top. *Elgialtia*: Elgialtia, Rau. Theilh (EAT).

*Eliza*. Santa Grazi, top. *Elixagaraialtia*: Elichagaray altia, (1838); Elichagarayaltia (1914).

*Erreka.* Larraine, top. *Erreka Altia:* Errecaaltia (1832); top. *Gorostolako Erreka Altia:* Gosrostolaco erreca eltia, Garastolaco-erreca altia, Borostolecoerrecaaltia, Borostolin erreca altia (1832); top. *Kapa(r)xikiko Errekaltia:* Capachichico errecaaltia, Capachico errecaaltia (1832); top. *Laphitzeko errekalzia:* Laphitceco erreca altia, Lapitcecoerreca altia (1832). Santa Grazi, top. *Errekaltia:* Errecaltia, Errecaltie (1914); top. *Bordaxarreko errekalzia:* Bordachar eco errecaaltia(1914). Aldaera izenondoarekin: *Erreka handia.* Larraine, top. *Erreka handia Altia:* Errecahandie altia, Erreca handié altia (1832).

*Etxe.* Altzürükü, top. *Etxaltia:* Etchaltia, Roches d' (EAT).

*Krutxe.* Larraine, top. *Kurutxaaltia:* Curutcha altia, Curutchaaltia, Curutchaltia (1832).

*Keheila.* Eskiula, top. *Quéheillaltia* (EAT).

*Olha.* Larraine, top. *Thurruolhaltia* (1832)

### 3. Ondorioak eta gai irekiak

Leku-izenak, hau da, toponimia txikia osatzen dutenak, gizakiak oso berea duen zerbaite eman dizkion izenak dira, bere bizitzarekin eta lanarekin lotuta dauden lekuei, alegia. Izen horiek herri baten kulturari dagozkio, eta ezin ditugu besterendu.

Henrike Knörr (2022: 74 [itzulp.])

*Hualde* abizena bi osagaien elkarketa da; alde batetik, zati hidronimiko bat du, *ur*, eta, beste alde batetik, lekua adierazten duen postposizio bat, *-alde*. Bi osagai hauek Euskal Herriko ipar-ekialdeko toponimian eta antropónimian presentzia nabarmena izan dute, hainbat aldaera sortuz. Izan ere, *Hualde* deiturarekin batera, *Ugalde* aldaera dago Erronkarin, eta *Uhalt* aldaera Zuberoako Santa Grazi eta Larraine herrietan. Honela, hiru aldaerak ditugu, hurrenez hurren, kontsonante dardarkariaren galerarekin lehena, kontsonantearen belarizazioarekin bigarrena, eta hasperenketarekin azkena. Bestalde, *Hualde* eta *Ugalde* onomastika pertsonalean emankorrik diren arren, toponimian ez dugu *Hualdea* edo *Ugaldea* aldaerarik kausitzen, Nafarroako beste leku batzuetako toponimian ohikoak izan daitezkeen arren. Alde honetako toponimian, aldaera ahostunak dira nagusi, *Ugaltea* Erronkarin eta, hiatoa aitzinatzu, *Uhaltia* Zuberoan.

Postposizioei dagokienez, *-alde* Erronkarin erabiltzen da (*Elizalde*, *Errekalde*, *Rekalde*), baina Zuberoan, *Eiheralde* abizena behin dokumentatu den arren, ez; aldaera mugatua, *-aldea*, inoiz ere ez, ez Erronkarin, ez Zuberoan; mugatzailerik gabe, azken bokala galdurik eta kontsonantea ahoskabeturik, *-alt*, Zuberoan baizik ez: *Hegialt*, *Egialt*, *Eiheralt*, *Elizalt*, *Errekalt*, *Laxalt*, *Uhalt* (eta *Duhalt*). Biarnon ere, *Deyheralt* (1793, Feas/Inhasi), *Duhalt* (1914, Arette/Ereta); *-alte*, Erronkarin eta, gehien bat, Zuberoan, hitz barnean edo izen elkarketa baten lehenengo osagaian erabiltzen da eta, halaber, hitz bukaeran (mugatzailerik ez dagoelarik) gerta daitekeen arren, ez da ohikoa: Zuberoan, *Bordalteko sorhoa*, *Eiheralte baratzea*, *Errekalteburúa*; Izaban, *Ekialterrea*; baina, deitura bezala, *Elizalte Bidankozten*. Baina aldaera guztien gainez, *-altea* da Erronkaribarren gehien erabiltzen dena eta ibar honetako aldaearrik be-

reizgarriena: *Bordaltea, Ekialtea, Errotaltea, Gaztulualtea, Lohikoaltea, Zibialtea* eta Hagionimian ere oso erabilia: *Donamarialtea, Sanjuanaltea, SanJulianaltea, Sanmiguelaltea* (edo *Donemigelealtea*). Zuberoari dagokionez, hiatoa aitzinatuz, *-altia* da aldaera nagusia: *Alhorraltia, Atharialtia, Berruetaltia, Nezarbidealtia, Bordaltia, Eiheraltia, Ekialtia, Elgealtia, Elizaltia, Errekaltia, Etxaltia, Olhaltia*.

Luze joan da gure jarduna, eta, hala eta guztiz ere, honekin ez da agortu gaia. Leukoa adierazten duten gainerako posposizioen ikerketa (*-arte, -aintzin, -barren, -behe, -buru, -gain, -gibel, -goi, -iri, -kantia, -ondo, -paretia, -pia, -(sar)gua, (sar)gia*) beste une baterako utzi beharko da.

Pirinioak, oro har, kultura anitzekoak eta eleanitzunak izan dira betidanik. Beste hizkuntza batzuk izan ziren eta badira hemen gure hizkuntzarekin batera; era berean, euskara beste leku batzuetan egon da, bere hilotzaren aztarnak leku haietan utziaz. *Ourbjeta* (1882) toponimoa, adibidez, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Artxiboetan dokumentatua, egungo Euskal Herritik kango kokatuta dago, Aspe bailarako Leskun herrian, Biarnoko bihotzean. Toponimo honek eta *ibon, achart, laxerito* edo *lurta* bezalako exotoponimoek garrantzi handiko informazioa ematen digute euskararen aintzinako aroaz.

*Hualde* abizen eder honek toponimiaren aberastasunaz hitz egiteko aukera eman digu. Onomastikaren zientziak abizenak eta leku-izenak ez ezik, herri batek munduari buruz duen ikuspegia bereziaz ere hitz egiten digu. Herri hori, abizenaren antzera, metaforikoki besterik ez bada ere, mintzairaren iturrietan sortu zen duela mende anitz, eta bere bideari lotu zitzaion Pirinioetako euskal mendi garaietako ur harrotuetatik ugatz handi eta emaritsuetaraino, eta, inoiz ere atzera egin gabe, Burgiko presaren gainetik jauzi egin, historiaren sokaz loturiko almadietan errekan behera jaitsi zen Erriberako Matraleraino, edo are urrunago oraindik, Tortosaraino, bidaiaik gure etorkizuna eraikitzen jarraitzeko eraman nahiko gaituen ur berrien aldera.

## Erreferentziak

- Artola, Koldo. 1977. Erronkariko uskararen azken hatsak... eino're!! *FLV*9. 75-107.
- Artola, Koldo. 1980. Erronkariko 'uskara'ren azken hatsak... oraino're! *FLV*12. 49-85.
- Auñamendi = Estornés Lasa, Bernardo. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Eusko Ikaskuntza, Bernardo Estornés Lasa Funtsa. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/> (2023/12/30).
- Aznarez, Josune. 2018. Erronkaribarko etxe-izen euskaldunak. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* 50(92). 199-236.
- Bidankozarte. 2019a. Los Hualde y el clero. Vidángo desde otro punto de vista. 2019-07-18. <http://vidangoz.com/bidakozarte/?p=2260> (2023/12/30).
- Bidankozarte. 2019b. Apellidos bidankoztarras: Hualde. Vidángo desde otro punto de vista. 2019-07-15. <http://vidangoz.com/bidakozarte/?p=2258> (2023/12/30).
- Botero, Giovanni. 1598. Guasconia Descriptio, Gasconia [Gascony]. Relationi Universali di Giovanni Botero Benese. <https://pictures.abebooks.com/inventory/30664292247.jpg> (2023/12/30).
- Cierbide, Ricardo. 1976. Toponimia del Becerro antiguo de Leyre (siglos XII-XIII) (I). *FLV*23. 237-284.
- Cierbide, Ricardo. 1977. Índice completo de antropónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre (I). *FLV*27. 431-472.

- EAT = Lopez-Mugartza (2008).
- Estornés, Bernardo. 1985. De toponimia roncalesa. In Edorta Kortadi (arg.), *Aingeru Irigarayri omenaldia*, 379-388. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Estornés Lasa, José. 1984. Mendigatxa'k Azkueri Kartak, 1902-1916: Eta Erronkari'ko Usukaristik utzulpen ta goarpenak. *FLV* 43. 55-128.
- FHV = Mitxelena (1977).
- Fortún Pérez de Ciriza, Luis Javier. 1992. Documentación medieval de Leire: catálogo (siglos XIII-XV). *Príncipe de Viana* 195. 57-168.
- Garate, Justo. 1962. Nombres vascos y caracteres de los seles. *Euskera* 7. 121-130.
- García Larragueta, Santos A. 1957. *El gran priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalén. Siglos XII-XIII*. Iruña: Institución Príncipe de Viana.
- Goñi Gatztambide, José. 1963. Catálogo del Becerro antiguo y del Becerro menor de Leyre. *Príncipe de Viana* 92-93. 149-214.
- Grosclaude, Michel. 1991. *Dictionnaire toponymique des communes du Béarn*. Edicions Reclams.
- Hualde, José Ignacio. 1995. Sobre el acento roncalés. *ASJU* 29(2/3). 499-525.
- Hualde, José Ignacio. 2017. Erronkariaren garapen fonologiko dialektalaz. In Aitor Iglesias & Ariane Ensunza (arg.), *Gotzon Aurrekoetxea lagunarterik hara*, 175-194. Bilbo: UPV/EHU.
- Ibarra Murillo, Orreaga. 2011. Mezkiritz a través de sus documentos. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* 86. 33-91.
- Internet Archive. 2015. Etxalt Ttipiak Conf Paysanne. 2015-12-01. <https://archive.org/details/EtxaltTtipiakConfPaysanne> (2023/12/30).
- Iñigo Ariztegi, Andrés, & Paskual Rekalde Irigoien. 2018. Euskal oikonimia Baztan-Bidasoa eremuko lekukotasun historikoan argitan. In Ana Zabalza (arg.), *Engraxitik Garazira. Izenen misterioa Nafarroan / De Engracia a Garazi: el misterio de los nombres en Navarra*, 163-248. Zizur Txikia: Aranzadi.
- Izagirre, Kandido. 1961. Erronkariko euskal-ondakin batzuk (2. zatia). *BAP* 17. 391-407.
- Knörr, Hendrike. 2022. Salvemos nuestros nombres de lugar. In Roberto Gonzalez de Viñaspre (arg.), *Henrike Knörr (1947-2008). Idazlan Hautatuak. Textos Escogidos (Euskaltzainak 39)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lopez-Mugartza, Juan Carlos. 2008. *Erronkari eta Ansoko Toponimiaz (Mendaur Bilduma 5)*. Iruña: Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua.
- Lopez-Mugartza, Juan Carlos & Erronkariko Euskara Zerbitzua (koord.). 2018. *Erronkari-barko etxeak-Las casas del Valle de Roncal*. Erronkari-Roncal: Erronkariko Batzorde Nagusia-Junta General del Valle de Roncal.
- Mitxelena, Koldo. 1969. Notas sobre los nombres de persona en la Navarra medieval. *FLV* 1. l-59 (Berrargit. OC 11, 502-538).
- Mitxelena, Koldo. 1973. *Apellidos vascos*. 3. argit. Donostia: Txertoa (1. arg., 1953; berrargit. OC 9, 1-235).
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldeundia (1. argit., 1961; berrargit., 1985).
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (11. argit. elektr. 2023: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- Morvan, Michel. 2004. *Noms de lieux du Pays Basque et de Gascogne*. Chamalières: Bonneton.

- NTO = Nafarroako Gobernua. *Nafarroako Toponimia Ofiziala*. <https://administracionelectronica.navarra.es/toponimia/?lang=eu> (2024/01/03).
- OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Orpustan, Jean-Baptiste. 2000. *Les noms des maisons médiévales en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Izpegi.
- Peillen, Txomin. 1989. Toponymie gasconne en Pays Basque et basque en Béarn limitrophe. In *Langues en Béarn, Cahiers de l'Université*, 107-128. Toulouse: Presses Universitaires du Mirail, Université de Toulouse-Le Mirail.

### **Informatzaileak**

Justo Baqué Salvoch (Izaba, 1913; bidegintzako langilea eta postaria).  
Josu Orduna *Kabila* (Uztarroze, 1955; gaztagilea).

